

Xedapen Orokorrak

**INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

4499

231/2010 DEKRETUA, irailaren 7ko, Baso Osasuneko Mahia sortu eta arautzeko dena.

2008ko abenduaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 2008ko abenduaren 31ko 250. zenbakian argitaratu zen honako lege hau: 17/2008 Legea, abenduaren 23ko, Nekazaritza eta Eliagaigintza Politikakoa. Eta basogintzako ekoizpenari buruzko III. tituluko VI. kapituluaren 45. artikuluan zera ezartzen du: Basogintza-ekoizpena sektorearen lehiakortasuna lortzen bideratuko da, merkatu globalizatuaren erronkei aurre egiteko xede. Lehiakortasun horretara heltzeko beharrezkoa da, besteak beste, basogintzako osasun politikak gauzatzeara, hala izurrei eta beste problema fitosanitario batzuei aurre egiteko. Basogintzako jarduera berritzea, basogintzako teknikak aplikatzea, genetikoki hobetutakoak izanik gaixotasunenei aurka egiten dien landareak erabiliztea, tratamendu fitosanitarioak egitea, etab., alderdi funtsezkoak dira basoen errendimendu ekonomikoa hobetzekotan. Helburu horiek jadesteari dagokionez, abenduaren 23ko 17/2008 Legeko 46. artikuluko 2. paragrafoak zera ezartzen du: baso-osasuneko mahaia eratuko da, non parte direlarik nekazaritza-arloko euskal administrazioak eta basogintza-sektorea bera (sektoreko ordezkaritza-organoen bidez). Legediko agindu hori betetzearen, xedapen hau prestatu da, zeinak honako helburuak baititu: batetik, Baso Osasuneko Mahaia sortzea, eta, bestetik, mahai horren osaera eta funtzioko arautzea.

Legean bertan jada zehazten zenez, dekretu honek finkatzen duen Baso Osasuneko Mahaia honakoek osatuko dute: euskal administrazioak eta basogintza-sektorea; eta honako funtziok izanen ditu: gaixotasunei eta izurrei aurre egiteko jarduera-ildoak zehaztea, eta arlo fitosanitarioan garatu beharreko lehentasuneko ikerketa-ildoak finkatzea.

Dekretu hau prestatzeko, eraginpeko administrazioei eta ordezkari sozial eta ekonomiakoei kontsulta egin zaie. Halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdin-tasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutako izapideak egin dira.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal-diko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren

Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA**

4499

DECRETO 231/2010, de 7 de septiembre, por el que se crea y regula la Mesa de Sanidad Forestal.

En el Boletín Oficial del País Vasco n.º 250, de 31 de diciembre de 2008, se publicó la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria. El Capítulo IV del Título III, dedicado a la producción forestal establece, en su artículo 45, que la producción forestal estará orientada hacia la competitividad del sector para afrontar los retos de un mercado globalizado. Para alcanzar esta competitividad es preciso, entre otras actuaciones, llevar a cabo políticas sanitarias forestales para así contrarrestar las plagas y otros problemas fitosanitarios. La innovación en la actividad forestal, la aplicación de técnicas de silvicultura, la utilización de plantas mejoradas genéticamente y resistentes a enfermedades, la realización de tratamientos fitosanitarios, etc., son cuestiones fundamentales a realizar al objeto de mejorar el rendimiento económico de los bosques. Para la consecución de estos fines el apartado 2 del artículo 46 de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, establece que se creará una mesa de sanidad forestal con participación de las administraciones agrarias vascas y del propio sector forestal representado a través de sus órganos de representación. Con la finalidad de cumplir ese mandato legislativo se elabora la presente disposición que tiene por objeto, en primer lugar, la creación de la Mesa de Sanidad Forestal y, en segundo lugar, regular su composición y funciones.

Como ya anticipa la propia Ley, el presente Decreto establece que la Mesa de Sanidad Forestal está formada por las administraciones vascas y el sector forestal y tiene, entre otras funciones, determinar las líneas de actuación en la lucha contra plagas y enfermedades y fijar las líneas de investigación prioritarias a desarrollar en materia fitosanitaria.

En la elaboración del presente Decreto, han sido consultados las administraciones afectadas, los interlocutores y las interlocutoras sociales y económicos afectados. Asimismo se han cumplido los trámites dispuestos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricul-

Kontseiluak 2010eko irailaren 7an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Sorrera eta atxikipena.

Baso Osasuneko Mahaia kide anitzeko organo gisa sortzen da, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari atxikia izango da. Atxikipen horrek ez du ekarriko aipatu sailaren egitura hierarkikoan integratzerik.

2. artikulua.— Funtzioak.

1.— Baso Osasuneko Mahaiaren funtzioak honakoak dira:

a) Gaixotasunei eta izurriei aurre egiteko jarduerako ildoak determinatzea.

b) Arlo fitosanitarioan garatu beharreko lehentasunezko ikerketa-ildoak finkatzea.

2.— Aipatu funtzioak betetzeko, Baso Osasuneko Mahaiak, batetik, egun diren kontrol-metodoak ebaluatu beharko ditu, eta, bestetik, ezagutu egin beharko ditu, beste eremu geografiko batzuetan, basoen osasunaren arloan beste talde batzuek dagitena.

3. artikulua.— Osaera.

Baso Osasuneko Mahaia honakoek osatuko dute: lehendakari izango dena, lehendakariordea izango dena, idazkaria izango dena, eta bokal izango direnak.

4. artikulua.— Lehendakaritza.

Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari dagokio Baso Osasuneko Mahaiko Lehendakaritza, eta honako funtzioak izanen ditu:

a) Ohiko bilkuretarako eta bilkura bereziatarako deialdiak erabakitzea eta aztergaiak finkatzea; horretarako kontuan izango ditu gainerako kideek sasoiz aurkeztutako eskaerak.

b) Bilkuretako buru izan eta bilkurak amaitutzat ematea, baita eztabaidetan moderatziale-lanak egitea ere.

c) Berdinketarik badago, bozketa ebaeztea.

d) Erabakien aktak eta ziurtagiriak bisatzea.

e) Lehendakari kondizioari dagozkion egintzez baliatzea.

5. artikulua.— Lehendakariordetza.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria dago kio lehendakariordetza, eta honako funtzioak izanen ditu:

tura y Pesca, previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 7 de septiembre de 2010,

DISPONGO:

Artículo 1.— Creación y adscripción.

Se crea la Mesa de Sanidad Forestal como órgano colegiado, adscrito a la Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco. Esta adscripción no conlleva la integración en la estructura jerárquica del citado Departamento.

Artículo 2.— Funciones.

1.— Son funciones de la Mesa de Sanidad Forestal:

a) Determinar las líneas de actuación en la lucha contra las plagas y enfermedades.

b) Fijar las líneas de investigación prioritarias a desarrollar en materia fitosanitaria.

2.— Para llevar a cabo las funciones descritas la Mesa de Sanidad Forestal evaluará los métodos de control existentes en la actualidad y conocer la labor que están desarrollando otros grupos que trabajan en sanidad forestal en otras zonas geográficas.

Artículo 3.— Composición.

La Mesa de Sanidad Forestal está integrada por una persona que ejerza la presidencia, una persona que ejerza la vicepresidencia, la que ejerza la secretaría y los que ostenten la condición de vocal.

Artículo 4.— Presidencia.

La Presidencia de la Mesa de Sanidad Forestal corresponderá al Viceconsejero o Viceconsejera de Agricultura y Desarrollo Rural, que tendrá como funciones:

a) Acordar las convocatorias de sesiones ordinarias y extraordinarias y la fijación del orden del día, teniendo en cuenta, en su caso, las peticiones de los demás miembros formuladas con la suficiente antelación.

b) Presidir y levantar las sesiones, así como moderar el desarrollo de los debates.

c) Dirimir la votación en caso de empate.

d) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos.

e) Ejercer cuantas acciones sean inherentes a su condición de Presidente.

Artículo 5.— Vicepresidencia.

La Vicepresidencia corresponderá al Director o Directora de Agricultura y Ganadería que tendrá como funciones:

a) Lehendakaritza duenaren ordezkak egitea, haren eskurantza guztieta.

b) Ez baditu ordezkotzaz berreganaturik Lehendakaritzako funtziok, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ordezkariaren funtziuez baliatzea.

6. artikulua.— Idazkaritza.

1.— Saileko langileen artean izendatuko du lehen-dakariak, eta honako funtziok izanen ditu:

a) Bilkuretarra bertaratzea, hitza duela baina boto-rik gabe.

b) Lehendakariaren aginduz, bileretarako deialdiak egitea.

c) Gaiak bideratzeko prestakuntzak egitea.

d) Idazkari izateak berez dakartzan gainerako fun-tzio guztiak.

e) Egindako bileren aktak idatzi eta jasotzea.

2.— Idazkariaren absentziarik bada, Baso Osasuneko Mahaiaik izendatutakoak egingo ditu haren ordezk-koak.

7. artikulua.— Bokal kondizioa dutenak.

1.— Baso Osasuneko Mahaiko bokalak honakoak dira:

a) Eusko Jaurlartzako Ingurumen, Lurralde Plan-gintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzako titularra.

b) Lurralde historikoetako aldundi bakoitzaren ordezkari bat, haien gobernu-organo bakoitzak izen-datutakoa.

c) «Neiker - Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea SA» sozietae publikoaren ordezkari bat.

d) Euskadiko Zur Mahaiaaren ordezkari bat.

e) Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederazioaren ordezkari bat.

2.— Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeak izendatuko ditu bokalak, eta euren agintaldia bi urtekoa izango da; izan ere, bi urtetik behin, euren karguei dagokienez, berretsi edo berrautatu egin beharko dira.

8. artikulua.— Bokalen eskubideak.

a) Behar besteko aurrerapenaz jasotzea deialdia, non honakoak baitira zehazturik: bileretako aztergai-ak eta gai horiei buruzko informazioa.

b) Botoa emateko eskubideaz baliatzea, eta, kasua bada, boto justifikatzeko arrazoiak eta zioak adieraz-tea.

a) Suplir a quien ostente la Presidencia en la tota-lidad de las atribuciones.

b) Ejercer las funciones de representante del De-partamento de Medio Ambiente, Planificación Terri-torial, Agricultura y Pesca cuando no asuma por su-plencia las funciones de la Presidencia.

Artículo 6.— Secretaría.

1.— Será nombrado por el Presidente o Presidenta de entre el personal de su Departamento y tendrá las siguientes funciones:

a) Asistir a las reuniones con voz pero sin voto.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones por or-den del Presidente.

c) Preparar el despacho de los asuntos.

d) Cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de Secretario.

e) Redacción y levantamiento de las actas de las reuniones celebradas.

2.— En caso de ausencia del secretario o secretaria será sustituido por quien acuerde la propia Mesa de Sanidad Forestal.

Artículo 7.— Personas que ostentan la condición de vocal.

1.— Son vocales de la Mesa de Sanidad Forestal:

a) La persona titular de la Dirección de Innova-ción e Industrias Alimentarias del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricul-tura y Pesca del Gobierno Vasco.

b) Una persona representante de cada una de las Diputaciones de los Territorios Históricos, designada por sus respectivos órganos de gobierno.

c) Una persona representante de la sociedad públ-ica «Neiker - Instituto Vasco de Investigación y Desa-rrollo Agrario, S.A.»

d) Una persona representante de la Mesa Interse-citorial de la Madera de Euskadi.

e) Una persona representante de la Confederación de Forestalistas del País Vasco.

2.— Los vocales serán nombrados por el Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural y su mandato será de 2 años, debiendo ser reelegidos o ratificados en su cargo cada dos años.

Artículo 8.— Derechos de las personas vocales.

a) Recibir, con la antelación suficiente, la convocatoria conteniendo el orden del día de las reuniones y la información sobre los temas del mismo.

b) Ejercer su derecho al voto y expresar, en su ca-so, el sentido y motivos que lo justifican.

- c) Eskaerak eta galderak egitea.
- d) Bokalaren kondizioari dagozkion gainontzeko eskubideak.

9. artikulua.— Informazioaren eta komunikazioen teknologai berriak.

Bilerak prestatzeko lanetan, Baso Osasuneko Mahaia sustatu eginen du informazioaren eta komunikazioen teknologia berriak erabiltzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Baso Osasuneko Mahaiko kideak izendatzeko orduan, betiere prestakuntza, gaitasun eta trebakuntza egokia dutenen artean, ahaleginak egingo dira gizon eta emakume kopurua berdintsuera izan dadin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.— Kide anitzeko organoek dagokienez Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Procedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan xedatutakoaz eraenduko da Baso Osasuneko Mahaia. Hala ere, Baso Osasuneko Mahaia, kasua bada, funtzionamendurako egoki irizten dien barne-erregimeneko arauak onartu ditzake.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko irailaren 7an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

- c) Formular ruegos y preguntas.
- d) Cuantos otros derechos sean inherentes a su condición de vocal.

Artículo 9.— Nuevas tecnologías de la información y las comunicaciones.

La Mesa de Sanidad Forestal promoverá, en los trabajos preparativos de las reuniones, la utilización de las nuevas tecnologías de la información y las comunicaciones

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En el nombramiento y designación de las personas que han de formar parte de la Mesa de Sanidad Forestal se procurará una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— La Mesa de Sanidad Forestal se regirá por lo dispuesto en materia de órganos colegiados en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. No obstante, la Mesa de Sanidad Forestal podrá, en su caso, aprobar las normas de régimen interno que estime pertinentes para su funcionamiento.

Segunda.— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de septiembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.